

Lau hormen artean



Urduri dago. Albisteeak nahastu eta kezkatu egiten dute. DBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) kobratzen badu ere, bere ekonomia kolokan dago. Elkertasunez eta gertutasunez saihestu nahian dabilzan familia ahul askori ondorioak sortzen ari da Covid-19.

Lau seme-alabaren ama zara.

Bai. Zaharrenak 17 urte ditu, hurrengo biek, 14 eta 13. Eta txikia, bi urte.

Etxean ikasten jarraitzen dute.

Noski. Ordenagailua partekatzen dute etxeko lanak egiteko, etab.

Lehen ikastetxeko jantokian bazkaltzen zuten.

Bai. Orain, bostak etxean egiten ditugu, horrek elikadura-gastuetan duen eraginarekin. Erosketak egitera ateratzen naizenean, laurak etxean geratzen dira. Ez naiz maiz jaisten, kutsatzeko beldur naizelako, eta, jakina, seme-alabak gaixotzeko beldurra dut. Kezkatuta nago telebistan, sare sozialetan... entzuten ditudan albisteekin.

Nola daramazu konfinamendua?

Beno... Nire etxea txikia da; 70 metro karratu inguru. Elkarrengadik oso hurbil gaude, eta birusaren ondorioek kezkatu egiten naute. Gainera, bi txikiak eta ni, asmatikoak gara.

Gai baikor gisa, herriko hezitzaileek zure seme-alabei, egiteko ekintzak bidaltzen dizkiete.

Bai. Haurrak entreteni daitezten, hainbat lan proposatzen dizkiete. Adibidez, errezeta bat aukeratu eta prestatu. Nireek kroketak egitea erabaki zuten. Nire alabetako bat sukaldeko modulu bat ikasten ari zen, eta praktikak egiten hastekoa zen, baina... Orain, etxean, beste hirurek bere laguntzarekin otorduak prestatzen dituzte. Nola egiten duten grabatu eta taldeko wassap batera bidaltzen dituzte, irabazlea nor izan den jakiteko. Jarduera entretenigarriak egiten dituzte. Askok eskertzen dut.

Eta CARITAS GIPUZKOA zurekin dago.

Bai. Erreferentziako hezitzaile bat daukat, eta behin baino gehiagotan deitzen diot. Telefonoz hitz egin eta lasaitu egiten nau. Nitaz arduratzen da eta asko laguntzen dit.

Zure senarra espetxean dago.

Bai. Urruti. Ez daukat hilero-hilero espetxera joateko bitartekorik; beraz, ez naiz senarrarekin egon orain dela bost hilabetez geroztik. Eta berak ere ez du aspaldian gure bi urteko alaba ere ikusi. Martxoaren 13an vis a vis bat genuen, baina birusaren ondorioz bertan behera geratu zen. Dirudienez, espetxeko ekonomatoan ez bezala, besteek ez omen dute ez eskularru eta ez maskarilarik. Bera, bestalde, oso kezkatuta dago aita gaixorik dagoelako –ezin du ibili– eta aspaldian ikusi ez duelako.

Konfinamenduan zehar senitarteko bat hil zaizu.

Bai. Izeba bat. Ospitalean zegoen, eta duela egun batzuk hil zela esan ziguten. Izebak hamar anaia zituen, eta denek agur esan nahi zioten. Hiletan, arreta-neurriekin, distantziak errespetatuz, eskularru eta maskarilak jantzita –ezin izan zuten hilkutxa ukitu–, ahal izan zuten neurrian, agurtu zuten arreba.

Koronabirusaren beste ondorio bat.

Bai. Gogorra izan zen azken musua ematerik ez izatea.

